



Usurbilgo Udala

## **2022KO EKAINAREN 23AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

### **BERTARATUAK**

#### **Alkate-Lehendakaria**

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### **Zinegotziak**

Beñat Larrañaga Urdanpilleta  
Lur Etxeberria Gurrutxaga  
Joxe Mari Iribar Zapirain  
Luken Arkarazo Silva  
Itziar Basterrika Unanue  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Carlos Pérez Fraisoli  
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Xabier Olano Jauregi

Ez dira bertaratu: Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2022ko ekainaren 23an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

#### **1.1.- 2022KO APIRILAREN 28KO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek 2022ko apirilaren 28ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

#### **1.2.- 2022KO MAIATZAREN 26KO BILKURAKO AKTA.**



Usurbilgo Udala

Batzarkideek 2022ko maiatzaren 26ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO MAIATZAREN 24TIK EKAINAREN 17RA (2022/556-2022/672).**

Alkatetzak 2022ko maiatzaren 24tik ekainaren 17ra bitartean (2022/556-2022/672) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- UDAL LANGILEAK HAUTATZEKO PROZESUETAN TASA BERRI BAT EZARTZEA.**

Beñat Larrañagak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu. Egonkortasun legearekin lotuta, 26 plazatako OPE bat onartu zutela esan du, eta negoziaketa mahaian garbi ikusi zutela dio 26 deialdi 2 urtetan kudeatu behar horretan lan bolumena ohikoa baino handiagoa izango dela. Oraindik ez dakitela dio izena emateko tramiteak, moduak eta oinarriak zer nolakoak izango diren, baina bai aurreikusi daitekeela uste du izen-emate masiboak izango direla.

Bi asmorekin proposatzen dutela dio tasa jartzea, batetik, lan-bolumen gehigarri horrek suposatuko dituen kostu ekonomikoak neurri txiki batean arintzea. Eta, bestetik, ez inorri atek ixteko asmoz, baina bai izena eman dezala benetan interesa duenak.

Beñatek jarraitu du esanez 10 euroko tasa dela proposatzen dutena. Ordenantzetan jasota dagoen moduan, tasa horretan hobariak jasoko dituztela esan du orain arte jasota dauden baldintzak betetzen dituztenek.

Gaineratu du tasa honek epemuga bat izango duela, egorkortze legearen iraupenaren baitan, beraz, azkenengoz 2024ko ordenantza fiskaletan jasoko dela esan du. Hala ere, bien bitartean ateratzen diren bestelako prozesuei ere eragingo diela zehaztu du, barne promozioak salbuetsita.

Josune Urkolak esan du puntu honetan abstenitu egingo direla, eta ez tasarekin ados ez daudelako, baizik eta jakin gabe zenbateko izenematea izango den, langile bat hartuko dela aurreikusten delako, eta horrekin ez daudela ados esan du.

Beñat Larrañagak erantzun dio egutegi bat diseinatzen ari direla, oraindik ez dakitela prozesuak modu mailakatu batean ateratzeko modurik izango den, zeren gertatu daitekeela dio izenemate guztiak epe jakin batean burutu behar izatea. Espero dutela dio hori horrela ez izatea, bestela kolapso totala izango dela gaineratu du. Mailakatzeko aukera izaten badute ere, bi bote bereziki haundiak aurreikusten dituztela esan du, administrariena eta brigadako langileena.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak aipatu du 26 lanpostu horietatik 25 meritu lehiaketa bidez bideratuko direla, eta horrek kudeaketa erraztuko duela uste du.

Beñat Larrañagak erantzun dio errazten duela ez dagoelako azterketa bat prestatu eta hori zuzendu beharrik, baina izenemateak kudeatu egin beharko direla. Aurreikusten dutela dio lan-bolumena ezohikoa eta oso handia izango dela.

Patxi Suárezek adierazi du alde bozkatuko duela, baina hasieran zalantzak izan zituela. Hala ere, ikusi zuela dio beharrezkoa dela garrantzia ematea Usurbilen lanpostuei eta bestalde hobariak badaude, orduan, bai alde bozkatuko duela. Hasieran ez zuela hain garbi ikusten dio dirua kobratzea.

Batzarkideek Ogasun batzordeko irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute:

“2021eko uztailaren 7an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen uztailaren 6ko 14/2021 Errege Lege Dekretua, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa. Gerora, abenduaren 28ko 20/2021 Legea onartu zen, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa. Lege horrek ezartzen du nahitaezkoa dela egonkortzeko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea, administrazio publikoen bitarteko funtzionarioen ehunekoa murrizteko.

Zentzu horretan, aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarri bat baimendu da, aldi baterako eta etenik gabe epe ezberdinetan zehar beteta egon diren egiturazko izaera duten lanpostuak barne izango dituen, betiere aurrekontu zuzkidura izan badute eta kontuan hartu gabe lanpostu horiek administrazio publikoen lanpostu zerrendetan, plantilletan edo giza balia bideak antolatzeke bestelako bitartekoetan aurreikusita dauden ala ez.

Horren ondorioz, Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabakia hartu zuen:

**“LEHENGOA.-** *Enplegu publikoaren behin behinekotasuna murrizteko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako Usurbilgo Udaleko Egonkortzeko Enplegu Publikorako Eskaintza onartzea, akordio honekin batera doan I. Eranskinean jasotakoaren arabera.*

**BIGARRENGOA.-** *Usurbilgo Udaleko 2011, 2018, 2019 eta 2020 ekitaldietako Enplegu Publikorako Eskaintzak aldatzea eta 20/2021 Legetik eratorritako Egonkortzeko Enplegu Publikorako Eskaintzak eragindako zatian bertan behera uztea.*

**HIRUGARRENGOA.-** *20/2021 Legetik eratorritako Egonkortzeko Enplegu Publikorako Eskaintza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian laburpen bat argitaratzea.”*

Lan Publikoko Eskaintza horrek 26 lanpostu jasotzen ditu. Erabaki hori lehenik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko maiatzaren 17an eta ondoren Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean maiatzaren 26an.



Usurbilgo Udala

Aipaturiko prozesu horiek, bakarra kenduta gainerakoak lehiaketa bidezko prozesuak dira, horrek dakarren guztiarekin. Esan nahi baita, hautagaiak eskabide eta merituak aurkezte hutsarekin prozesuan parte hartu eta emaitza izango duela, inolako oposaketa azterketarik gabe. Gainera, lanpostuaz gain lan-poltsak ere sortuz gero, lanpostuan interesik izan ez arren lan-poltsara begira soilik izena eman dezakeen hautagai kopurua handia izango dela aurreikusten da administrazio guztietan.

Ikusirik udalak ez duela baliabide ekonomiko, pertsonal edo material nahikorik aipaturiko lege- dekretutik eratorritakoa betetzeko, Usurbilgo Udalean Pertsonal eta Kontratazio teknikari lanetan ari denak udal Ordenantza Fiskaletan tasa berri bat ezartzea proposatu du. Tasa honen bidez udal jarduera partzialki finantzatuko litzateke, kontuan izan behar baita 26 lanpostu hauetako lehiaketa prozesuen kudeaketa administratiboak (zerrendak osatu, merituak baloratu ikasketa eta lan eskarmentuari dagokionean) lan karga administratiboa nabarmen gehitu eta ziur aski administrari bat gehiago hartu behar izatea ekarriko duela.

Horra, jarraian, Pertsonal eta Kontratazio teknikariak egin duen proposamen zehatza:

**Lehenengoa:** Ogasuneko informazio-batzordeari proposatzea tasa bat sor dezala hautaketa-prozesuetako izangaiantzat, baldintza hauekin:

Zerga Kuotak: 10,00 euro, dagokion enplegu publikoaren eskaintzan sartu diren lanpostuak txanda irekian karrerako funtzionario gisa edo lan-kontratuko langile finko gisa behin betiko betetzeko hautaprotetan izena emateko eskaera egiten denean.

**Bigarrena:** Aurreko tarifei honako **murrizketa** hauek aplikatuko zaizkie:

- a. Ehuneko 100ekoa, subjektu pasiboa enplegu-eskatzaille gisa agertzen den kasuetan, gutxienez sei hilabeteko antzintasunarekin, hautaketa-proben deialdia Estatuako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunari dagokionez.
- b. Ehuneko 100ekoa, genero-indarkeriaren biktimen alde.
- c. Ehuneko 100ekoa, ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonen alde.
- d. Ehuneko 100koa, guraso bakarreko familietako kideen alde.

**Hirugarrena: Salbuespenak eta hobariak:**

Familia ugariak babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legean eta horrekin bat datozen gainerako arauetan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean familia ugariako kide diren subjektu pasiboek hobaria izango dute tasa honetan, baldintza hauetan:

Kategoria orokorreko familia ugariak: % 50.

Maila bereziko familia ugariak: 100eko 100.



Usurbilgo Udala

Proposamenaren legezkotasuna eta bideragarritasuna aztertu ditu bere aldetik udal kontu-hartzaileak. Berak egindako txostenean honako xehetasunak ageri dira:

“Ez-ohiko lan karga administratiboa ekarriko duten lanpostuen egonkortze prozesuak zati batean behintzat tasa berri batekin finantzatzeak legezko babes bat indarrean dauden Foru Arau eta Ordenantzetan.

Bestalde Tasaren ezaugarri nagusiak bi direnez (zerbitzu bat eskaintzearen truke, zerbitzuaren kostua edo horren zatia zerbitzua jasotzen duen herritarrari eskatzea) biak betetzen dira sinatzailearen iritziz proposamen honetan.

Batetik, Usurbilgo Udalak zerbitzua eta lan administratibo gehigarria eskaini beharko dio lanpostuen egonkortze prozesuetan parte hartu nahi duten hautagaiei. Eta bestetik, proposatzen den kuota 10 €urokoa soilik izanik, tasaren bidez jasotzen diren zenbatekoak ez dira iritsiko zerbitzuaren kostu osoa berdintzera.

Beraz, udal langileak hautatzeko prozesuetan tasa berria ezartzeko proposamena legezkoa da, sinatzailearen iritzian.”

Pertsonal teknikariaren proposamena eta udal kontu-hartzailearen txostena ikusirik, batzordekideen gehiengoak, EHBilduko bi kideren aldeko bozka eta EAJko kidearen abstentzioarekin, bere oniritzia eman dio udal langileak hautatzeko prozesuetan tasa berri bat ezartzeko proposamenari, beraz onartzeko diktamena Udal Batza Osoari luzatuz.

Ogasun batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak gehiengoz erabaki du Udal langileak hautatzeko prozesuetan tasa berri bat ezartzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

#### **4.- “HARRERA” ELKARTE ASISTENTZIALARI LOKAL BATEN LAGAPENA EGITEA.**

Alkateak esan du gai hau Antolakuntza batzordean landu zutela.

2018ko maiatzeko plenoan Harrera elkarteari egindako lokalaren lagapena 2022ko ekainaren 28 artekoa dela aipatu du; hori horrela, planteatzen dutena da lokal hori erabiltzen jarraitzeko aukera ematea orain arteko baldintza berdinetan.



Usurbilgo Udala

Patxi Suárezek adierazi du alde bozkatuko duela. Gaineratu du Harrera elkartearekin puntu batzuk ez dituela partekatzen, baina bergizarteratzean sinesten duela eta ondorioz alde bozkatuko duela.

Batzarkideek Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute:

“Esp.zk.: ID.19/2022-0091

### **Ikusirik**

2018ko maiatzaren 29an egindako ohiko bilkuran, Usurbilgo Udalbatzarrak, “Harrera Taldea”-ri prekarioz Kale Nagusia 43an kokatutako bulego baten (6. bulegoa) lagapena egitea onartu zuen, 4 urtetako iraupenarekin. Aipatu lagapena 2022ko ekainaren 28a artekoa da.

Orain, 2022ko maiatzaren 16ko datarekin, Harrera Elkarte Asistentzialak eskaera aurkeztu du Usurbilgo erregistro orokorrean, lagapena luzatzeko eskaera eginez.

Usurbilgo Udalak Kale Nagusia 43an Euskaraz Kooperatiba Elkarteari 2015eko azaroaren 24an Ohiko Osoko Bilkuran egindako prekariozko lagapenaren baitan darabilen lokalean bulegotako bat libre dago. Dagokion espedientean jasotako ondasun higigarrien inventarioaren arabera, bulego horretan ez dago Udal jabetzako ondasunik.

Era berean, “Harrera Taldea” elkarte asistentziala elkartearen udal erregistroan inskribatuta dago.

Bestalde, Udal Idazkariak prekariozko lagapena egiteko prozedurari buruzko txostena eman du.

### **Kontuan harturik**

- Udal jabegoko ondasunen izaera juridikoari dagokionez:
  - Toki-Jaurbidea arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea; Toki Entitateen Ondasunak arautzen dituen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua
- Ondare-izaerako ondasunen erabileraren doako lagapena:
  - Toki Entitateen Ondasunak arautzen dituen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua; apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Herri Administrazioetako Ondarea arautzen duen azaroaren 3ko 33/2003 Legea
- Usurbilgo Udaleko irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroari buruzko ordenantza (GAO 2005-08-18)

2022ko ekainaren 14an egindako Antolakuntza Batzordean ebazpen-proposamen honen bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta, Beñat Larrañaga eta Josune Urkola.



Usurbilgo Udala

Antolakuntza Batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Usurbilgo Udalak “Harrera Taldea”ri prekarioz Kale Nagusia 43an kokatutako bulego baten (6.bulegoa) lagapena onartzea.

**Bigarrena:** Prekariozko lagapenaren iraupena 4 urtetakoa izango da, 2022ko ekainaren 29ko datatik aurrera.

**Hirugarrena:** Erabaki honen berri interesatuari, Euskaraz Kooperatiba elkarteari (AEK) eta udal-ondare arduradunari emango zaio.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

**5.- LINEA 3000, S.L.RI “AHOTS ETA DATU KOMUNIKAZIORAKO SAREAREN BEHARREZKO ELEKTRONIKA HORNITZEA, SAREAREN MANTENTZEA ETA LAGUNTZA TEKNIKOKO LANAK BURUTZEA, SAREAREN KUDEAKETA ETA INSTALAKUNTZA ZERBITZUAK EMATEKO” KONTRATURAKO JARRITAKO BERMEA ITZULTZEA.**

Lur Etxeberriak azalpenak eman ditu irizpenean jasotzen den bezala.

Josune Urkolak esan du kontratua amaitu zaion arren Linea 3000 enpresak zerbitzua ematen jarraitzen duela kontratu txiki bidez.

Idazkariak esan du bai horrela dela eta azterketa egin beharko dela lizitatorira ateratzeko.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute:

“Esp. Zenbakia: ID.05/2016-0377



Usurbilgo Udala

## Aurrekariak

Udalbatza Plenoak, 2016ko irailaren 27an egindako ohiko bilkuran onartu zuen Usurbilgo Udalaren ahots eta datu komunikaziorako sarearen beharrezko elektronika hornitzea, sarearen mantentze eta laguntza teknikoko lanak burutzea, sarearen kudeaketa eta instalakuntza zerbitzuak emateko kontratua esleitzeko publizitate gabeko prozedura negoziatua.

Lizitazio prozedura guztiaren amaieran Udalbatza Plenoko 2016ko abenduaren 20ko erabakiaren bidez esleipena egin zen Linea 3000, SL. enpresaren alde. Ondoren, 2017ko urtarrilaren 2an, kontratua formalizatu zen 5 urterako.

## Bermea itzultzea

Administrazio-baldintzen agirian 12. klausularen arabera: *“Hilabete bateko epea ezarri da, harrera formala egiten den egunetik hasita, berme gisa ezarri dena, Sektore Publikoaren Kontratuen Legean estu Bateratuaren eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean jasota datozen ondorioetarako. Berme epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak. Epea igarotzen bada Administrazioak ezelako eragozpenik jarri barik, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.”*

Une honetan 2017ko urtarrilaren 2an sinaturiko kontratuaren iraupena agorturik dago eta hortaz, juridikoki bermea itzultzea dagokio udalari. Linea 3000 SL enpresa bermea itzultzea eskaera aurkeztu du eta Zerbitzu eta Mantenu saileko buruak bermea itzultzearen aldeko txostena osatu du.

Kontratu hori amaituta egon arren, sare horren mantentzea beharrezkoa den heinean lizitazio berri bat atera beharko litzateke. Une honetan informatika zerbitzuen eta sarearen mantenimenduaren inguruko antolaketa azterketa bat egiten ari da udala eta zentzu horretan, urte betez Linea 3000rekin mantentze lan horietan jarraitzea proposatzen da kontratu txiki bidez, ondoren baloratu ahal izateko bi zerbitzu horien kudeaketa nola lizitatuko den. Hortaz, enpresa honek beste urte betez zerbitzua ematen jarraituko duen arren, berme hori 5 urtetako kontratuko inbertsio eta lanei dagokie, proportzio ekonomiko berean, eta ondorioz, kontratu hori amaitu denez udalari itzultzea dagokio.

## Aplikagarria den legedia

- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua, azaroaren 14ko 3/2011 Dekretu legegilearen bidez onartua.
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 legea partzialki garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- Urriaren 1eko 39/2015eko Administrazio Publikoetako Prozedura Erkidearen Legea.





Usurbilgo Udala

## Lege txostenak

Espedientean Kontratazio Teknikariaren lege txostena eta Zerbitzuak eta Mantenua saileko arduradunaren txostena aurkitzen dira.

Beraz, guzti hori ikusita, Zerbitzuak eta Mantenua Batzorde Berriemateak, 2022ko ekainaren 15ean egindako ohiko bileran aho batez, Lur Etxeberria, Jose Mari Iribar eta Carlos Perezen aldeko botoekin, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak erabaki du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENENGO:** Linea 3000, SL enpresari Usurbilgo Udalaren “ahots eta datu komunikaziorako sarearen beharrezko elektronika hornitzea, sarearen mantentze eta laguntza teknikoko lanak burutzea, sarearen kudeaketa eta instalakuntza zerbitzuak emateko” kontratuan jarritako behin betiko bermea (840,00 €) itzultzea kontu korrante honen zenbakian: NAFARROAKO RURAL KUTXA ES03 3008 0148 6426 0290 4829.

**BIGARREN:** Erabaki honen berri LINEA 3000, SL enpresari, Zerbitzu sailari eta Kontuhartzaitza sailari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 6.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Ez dago.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, arratsaldeko 18:20ak direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**